



Dokumentu hau Kutxabankekin egin du. Tokia:

Norentzat:

Data:

Dokumentua egiteko oinarri hartu da Informazio Estandarizatuen Europako Fitxaren (ESIS) edukia, eta mailegu kontratuaren proiektua. Horien edukiak bat datoz.

Zordunari jakinarazten zaio klausula edo elementu garrantzitsu hauek daudela FiAE honekin batera ematen den mailegu kontratuan.

1. Maileguaren interesa aldakorra bada, maileguari aplikagarria zaion interes tasa ezartzeko erabiltzen da erreferentziako interes indize edo interes tasa ofizial hau: Hilabete bat lehenagoko urtebeteko euriborra (BOE), adosturiko diferentzial bat gehituta. Administratzailea: EMMI (European Money Markets Institute). (Atal hau ez da aplikazioa izango mailegua tipo finkora izango balitz.)
2. Zordunak bere gain hartzen du mailegua emateri loturiko gastu hauen ordainketa:
 - i. Higiezina tasatzearen inguruko gastuak, hala badagokio.
 - ii. Berariaz eskatzen dituen hipoteka maileguaren eskrituraren kopien kostua.
 - iii. Mailegua/kreditua irekitzearen komisioa.
 - iv. Etxeko aseguruaren urteko prima (Hipoteka maileguak/kredituak).
 - v. Mantentze komisioa (ordainketa kontua).
3. Maileguak ez dio goiko mugarik jartzen interes tasaren aldaketari (ez du sabairik). Horren ondorioz, baliteke zordunak bere gain hartu behar izatea erreferentzia gisa erabilitako indizearen igoera guztiak. (Atal hau ez da aplikazioa izango mailegua tipo finkora izango balitz.)
4. Mailegu hartzaileak eperako eskubidea galduko du, eta kontratua aurrez amaituko da, baldin eta baldintza hauek batera betetzen badira:
 - a) Mailegu hartzaileak atzerapenarekin ordaintzea maileguaren kapitalaren edo interesen zati bat.
 - b) Amaitutako eta ordaindu gabeko kuoten zenbatekoa hauen baliokidea izatea, gutxienez:
 - i. Emaniko kapitalaren zenbatekoaren % 3aren baliokidea, atzerapena gertatuko balitz maileguaren iraupenaren lehenengo zatian. Baldintza hori betetzen dela iritziko da, amaitutako eta ordaindu gabeko kuotak hamabi hilabete ordaindu gabeko baliokideak direnean, edo zordunak ordaindu ez duen kuota-kopuruak adierazten duenean gutxienez hamabi hilabeteri dagokien epean ez duela bete obligazio hori.
 - ii. Emaniko kapitalaren zenbatekoaren % 7aren baliokidea, atzerapena gertatuko balitz maileguaren iraupenaren bigarren zatian. Baldintza hori betetzen dela iritziko da, amaitutako eta ordaindu gabeko kuotak hamabost hilabete ordaindu gabeko baliokideak direnean, edo zordunak ordaindu ez duen kuota-kopuruak adierazten duenean gutxienez hamabost hilabeteri dagokien epean ez duela bete obligazio hori.
 - c) Mailegu emaileak mailegu hartzaileari ordaintzeko eskatu izana. Horretarako hilabeteko epea eman behar dio gutxienez, eta ohartarazi behar dio, eskaera horri kasurik egiten ez badio maileguaren zor guztia ordaintzeko eskatuko diola.
5. Aurreko zenbakian aipatu den mailegua aurrez amaitze horrek ondorio bat ekar dezake, alegia, zordunak bere gain hartu behar izatea mailegua gauzatzetik etorritako gastuak.

Bulegoa:

Eragiketa zenbakia:

Mailegu hartzaileen, abal emaileen eta hipotekatzaileen izena, abizenak eta sinadura, hala badagokio: